

Bestalde, laborariek eta langileek ba dute zientzia eta teknikako orientazio eta laguntzaren beharra.

Jakina gauza hauek kitotan egin behar direla.

Zer egin faltaren beldurrik ez dago beraz, eta zergatik ez has ?

Baita ere erran behar da, lan hauek efektiboak izateko, maixuarena egingo duenak ez duela goitik behera begiratuaz egin behar, ez pedante baten antzera hainbeste eta hainbeste ikusten ditugun bezala, jende xehearen mailan baizik, mahain-borobila eginaz, zeren-eta denok dugu zer ikasia.

Hortarako, hori egin ahal izateko, onena da noizik behin, ahal den gehienetan alegia, buzoa har edo haitzurra har eta esku lana zer den jakiteko (edo ez ahanzteko) lantokitara eta kanpainara joatea, beste langileekin batera lanean hartzera.

Dena den, euskal testo, formazio ta abarren behar gorrian gara.

Ekin dezagun beraz !

BAIGURA.

(1) « Pekin Ingorme » astekaritik ateraia. Espaineraz ere ba da.

## *Kandeleri Kandelera*

*Azarotik otsailera  
kandelera mandelera  
zazpi probintzi batera.  
Burruka bat,  
gartzela bi,  
hiru ihesi, lau lurrera,  
doa Euskadi aurrera.*

*Eguzki zaharra  
eguzki berri da.  
Erregeak ekarriko  
egun berriak Madrildik  
urte zaharretik berrira.*

*Promesa berri berriak,  
zazpi jostunek josiak,  
erruz saldu ta erraz erosiak  
Fragak eta Areiltzak.*

*Hamar agintza urrezko  
ehun ate burdinezko.  
Promesa guzien giltza  
Karabantxeletan dago.  
Erregetxin erregetxo  
hitzak airean doaz ta  
gartzela gartzelan dago.  
Mutil horiek libratu arte  
egun berririk ez dago.*

*urte*

*Kandeleri mandelari  
gartzela bete gudari.  
Aturritik Ebroralno  
egun berririk ez dago.  
hilargi eta eguzki,  
askatu arte Euskadi.*

Joxe AZURMENDI.